**Azalpen txostena, Gobernantza Departamentuaren aurrekontuak indarrean dagoen aurrekontuarekin alderatuta agertzen dituen desberdintasun nagusiei eta haiek prestatzean erabilitako irizpideei buruz.**

Departamentuak 8 aurrekontu programa ditu, autonomia dutenak eta oro har bat egiten dute departamentu honen jarduera ildo nagusiekin. Txostenean bereizirik aztertzen dira, indarrean dagoen aurrekontuarekin alderatuta desberdintasun nagusienak.

**010 programari** buruz adierazi behar da, **Idazkaritza Teknikoari** Departamentuko sistema informatikoa koordinatzea dagokionez, IZFE finantzatzeko partidetan, Aldundiaren zerbitzu informatikoen hornitzaile den neurrian, programa horretan igoera dagoela. Hazkunde hori langileen gastuaren eta zerbitzu profesionalei dagokien gastuaren igoeraren ondorio da. Lehenengoari dagokionez igoera, alde batetik, 2024ko hitzarmen kolektiboa onartzearen ondorio da lanbide-sailkapen eta ordainsari-sistema berriarekin, eta beste aldetik langile berriak sartzeko aurreikuspenaren ondorio ere. Bigarrenari dagokionez, adierazi behar da gastu handiagoa egingo dela zenbait zerbitzutan, hala nola mantentze-lanetan eta laguntza tekniko informatikoan foru-korporazioko lanpostu eta erabiltzaile guztiei zerbitzu osoa eta integrala eman ahal izateko, identitateen kudeaketan eta identifikazioan, autentifikazioan eta sinaduran. Nabarmentzekoa da Estrategia eta Transformazio Digitalaren arloko laborategiaren eremuaren barruan garapenari, euskarriari eta laguntza teknikoari dagokion gastua handitu dela, GFAren Eraldaketa Digitalaren Planarekin jarraitu ahal izateko.

**100 programak**, zeina **Diputatuen Kontseiluaren Idazkaritza, Aholkularitza eta Defentsa Juridikoa**ri baitagokio, bere ohizko funtzioak garatzeko kredituak jasotzen ditu.

**Zerbitzu Orokorretako 110 programari dagokionez,** bertako ohiko eginkizunak betetzeko behar diren kredituak jasotzen ditu, eta horien esleipenean jarraitutasun-ildoari eusten dio.

**120 programak**, **Kontratazio Publikoa Koordinatzeko Zerbitzuak**, Kontratazio Publikoa Koordinatzeko Zerbitzuaren eginkizunen garapenarekin lotutako gastu arrunta

**Informe explicativo de las diferencias más significativas que presenta el presupuesto del Departamento de Gobernanza y respecto al vigente y los criterios adoptados en su elaboración.**

El Departamento cuenta con 8 programas presupuestarios que, teniendo autonomía propia, se adecuan a las grandes líneas de actuación de este departamento. En este informe se señalan las diferencias más significativas respecto del presupuesto vigente.

Respecto al **programa 010** señalar que, correspondiendo a la **Secretaría Técnica** la coordinación del sistema informático del Departamento, en las partidas destinadas a la financiación de IZFE, en cuanto proveedor de servicios informáticos de la Diputación, en dicho programa se produce un incremento. Este incremento obedece al aumento, tanto del gasto de personal, como del gasto correspondiente a servicios profesionales. Respecto al primero el aumento es consecuencia de la aprobación del Convenio colectivo 2024 con nueva clasificación profesional y sistema retributivo, así como de la previsión de la incorporación de personal de nuevo ingreso. En cuanto al segundo, señalar que el aumento viene derivado de un mayor gasto en servicios tales como mantenimiento y asistencia técnica informática para poder dar un servicio completo e integral a todos los puestos de trabajo y personas usuarias de la corporación foral, gestión de identidades e identificación, autenticación y firma. Cabe destacar el aumento del gasto correspondiente al desarrollo, soporte y asistencia técnica dentro del ámbito de laboratorio del área de Estrategia y Transformación Digital para poder continuar con el Plan de Transformación Digital de la DFG.

El **programa 100,** que corresponde a la **Secretaría del Consejo de Gobierno Foral, Asesoría y Defensa Jurídica**, recoge los créditos necesarios para el desarrollo de sus funciones habituales.

En cuanto al **programa 110 de Servicios Generales,** recoge los créditos necesarios para el desarrollo de sus funciones habituales, manteniendo una línea de continuidad en la consignación de los mismos.

El **programa 120, Servicio de Coordinación de la Contratación Pública**, consigna créditos necesarios para financiar el gasto corriente relacionado con el desarrollo de las funciones

finantzatzeko beharrezkoak diren kredituak jasotzen ditu.

**Funtzio Publikoaren 200 programak** -Foru Aldundi osoaren egitura gastuaren programaren adibidea- hainbat prozesu garatzen jarraitzen du, hala nola jada onartutako enplegu-eskaintzen deialdiak eta lan-poltsak gaur egun horrelakorik ez duten arloetan.

Horregatik, helburu horietan aurrera egitea ahalbidetuko duten kredituak jasotzen dira.

**Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzako 300 programan,** herritarren partaidetzaren eremuan eragin nabarmena izaten jarraitzen da, eta horretara bideratutako kredituek gora egin dute.

Adierazi behar da aurrekontu irekiei (2025-2027) dagokien prozesua antolatzeko kredituak jasotzen direla adierazi behar da. Herritarrek aukeratutako proiektuak gauzatzeko beharrezkoak diren diru funtsak 2026 eta 2027ko ekitaldietako aurrekontu programan txertatu beharko dira.

Gipuzkoako Eskola Irekiaren partida handitu egin da, Aldundiko eta Gipuzkoako Udaletako arduradun politiko eta teknikoen prestakuntza parte-hartzailea sustatzeko, eta Gipuzkoako herritarren elkarteetako kideen formakuntza plana gauzatzeko.

Politika publikoak ebaluatzeko proiektuak garatzeko kreditua aurreikusten da, Diputatu Nagusiaren Kabinetean eta Ogasun eta Finantza Departamentuan txertatutako beste partida batzuen kreditu osagarria.

Azpimarratu behar da Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzako Zerbitzuak urtero kudeatzen dituen udalentzako eta/edo herritarrentzako erakundeentzako dirulaguntzen partidak handitu direla. Igoera horiek 2025eko eta 2026ko aurrekontuetan eragingo dute. Gipuzkoako Udalek eta elkarteek garatutako parte-hartzea sustatzen duten proiektuak finantzatzen dira dirulaguntza horien bidez.

**400 programak, Foru Aldundiko zerbitzuen berrikuntza eta eraldaketakoak,** GFAren konpromiso korporatibo eta zeharkakoa gauzatzeko behar diren kredituak jasotzen ditu, erakundearen beraren kultura eta antolaketa aldaketarekin.

del Servicio de Coordinación de la Contratación Pública.

El **programa de Función Pública, 200** -ejemplo de programa de gasto de estructura de toda la Diputación Foral-, continúa desarrollando procesos como las convocatorias de ofertas de empleo ya aprobadas y las bolsas de trabajo en áreas actualmente carentes de ellas.

Por todo ello, se recogen los créditos que permitan avanzar en esos objetivos.

En el **programa 300 de Buen Gobierno y Participación Ciudadana** se continúa incidiendo de manera significativa en el ámbito de la participación ciudadana, habiendo aumentado los créditos destinados al mismo.

Señalar que se contemplan los créditos destinados a la organización del proceso correspondiente a los Presupuestos Abiertos (2025-2027). Los fondos necesarios para llevar a cabo los proyectos elegidos por la ciudadanía deberán incorporarse al programa presupuestario en los ejercicios 2026 y 2027.

Se amplía la partida de la Escuela Abierta de Gipuzkoa para impulsar la formación participativa de responsables políticos y técnicos de la Diputación y de los Ayuntamientos de Gipuzkoa, así como para llevar a cabo el plan de formación de miembros de las asociaciones ciudadanas de Gipuzkoa.

Se contempla crédito para el desarrollo de proyectos de evaluación de políticas públicas, crédito complementario a otras partidas incluidas en el Gabinete de la Diputada General y en el Departamento de Hacienda y Finanzas.

Cabe destacar que se ha producido un incremento en las partidas de las subvenciones destinadas a Ayuntamientos y/o entidades ciudadanas que anualmente se gestionan desde el Servicio de Buen Gobierno y Participación Ciudadana. Estos aumentos afectarán a los presupuestos de 2025 y 2026. A través de estas subvenciones se financian proyectos que fomentan la participación desarrollados por Ayuntamientos y Asociaciones de Gipuzkoa.

El **programa 400, Innovación y transformación de los servicios públicos forales**, recoge los créditos precisos para hacer realidad el compromiso corporativo y transversal de la DGF con el cambio cultural y organizativo de la propia institución.

Bestalde, departamentuari atxikitako IZFE, SA sozietateak bere inbertsioak egiteko behar duen finantzaketa izan behar du, GFAren eskaera gero eta handiagoaren arabera erantzuteko gaitasunari eutsi ahal izateko. Kreditu horiek programa honetan esleitzen dira.

En otro orden de cosas, se requiere también que IZFE, SA, sociedad adscrita al departamento, cuente con la financiación precisa para acometer sus propias inversiones y poder así mantener la capacidad de respuesta acorde a la creciente demanda por parte de la DFG, créditos que se consignan en este programa.

**Suaren aurkako Babesari eta Salbamenduari buruzko 500 programari** dagokionez, adierazi behar da gastu kredituak handitu egin direla Donostiako Udalarekin suhiltzaile-zerbitzuaren arloan sinatutako hitzarmenari dagokionez, bi erakundeak hartutako konpromisoei eta egiten ari diren lan partekatuari behar bezala erantzun ahal izateko, “Gipuzkoa Babestu 20_30” proiektua aintzan hartuta.

En relación con el **programa 500, de Protección contra el fuego y Salvamento,** cabe señalar que se aumentan los créditos de gasto en relación al Convenio con el Ayuntamiento de San Sebastián en materia de servicio de bomberos, para atender debidamente los compromisos adquiridos y el trabajo compartido que se está llevando a cabo por parte de ambas instituciones, con la vista puesta en el proyecto “Gipuzkoa Babestu 20_30”.

Suhiltzaile-etxe berri bat eraikitzeko behar diren proiektu teknikoak idazteko kredituak aurreikusten dira.

Se contemplan créditos destinados a la redacción de los proyectos técnicos necesarios para la construcción de un nuevo parque de bomberos y bomberas.

Era berean, Bide Azpiegituretako Departamentuarekin lankidetzan transmisio-sare berrirako behar den inbertsioa gauzatzen jarraitzeko finantzaketa jasotzen da, baita zerbitzuari atxikitako eraikinen energia-birgaiketarekin lotutako inbertsioak ere.

Igualmente, se recoge financiación para continuar ejecutando la inversión precisa para la nueva red de transmisiones en colaboración con el Departamento de Infraestructuras Viarias, así como inversiones relacionadas con la rehabilitación energética de los edificios adscritos al servicio.

Gainera, aurrekontura egokitu egin da, hornidurei, parkeak egokitzeko obrei eta zerbitzuen jarraitasunari dagokienez 48 pertsona gehiago izateak dakartzan beharrei erantzuteko. Zerbitzuan emakumeen kopurua handitzeari dagokionez, egokitzapen premiazkoenak hartu dira kontuan.

Además, se ha adaptado el presupuesto para atender las necesidades que supone el incremento de 48 personas en lo relativo a los suministros, obras de adecuación de los parques y la continuidad de los servicios. En cuanto al aumento del número de mujeres en el Servicio, se han tenido en cuenta las adaptaciones más urgentes.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



04 Departamentua GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA/
Departamento 04 DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA

(Mila eurokotan/Miles de euros)

| Programak<br><br>Programas | LANGILEAREN GASTUAK<br>1<br>GASTOS DE PERSONAL | ONDASUN ETA SERB.OHIKO<br>2<br>GTOS.CTES. BIEN.Y SERV | FINANTZA GASTUAK<br>3<br>GASTOS FINANCIEROS | TRANSFER. ARRUNTAK<br>4<br>TRANSFER. CORRIENTES | KONTINGENT. EZUSTEKOAK<br>5<br>CONTINGENC. IMPREVISTOS | INBERTSIO ERREALAK<br>6<br>INVERSIONES REALES | KAPITAL TRANSFER.<br>7<br>TRANSFER. DE CAPITAL | FINANTZA AKTIBOAK<br>8<br>ACTIVOS FINANCIEROS | FINANTZA PASIBOAK<br>9<br>PASIVOS FINANCIEROS | AURREKONTUA GUZTIRA<br><br>TOTAL PRESUPUESTO |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 01. Gobernantzako Zerbitzu Orokorrak/<br>Servicios Generales de Gobernanza | 1.066,76 | 14.488,39 | | 96,26 | | 1.653,96 | | | | 17.305,37 |
| 10. Diputatuen Kontseiluaren Idazkaritza, Aholkularitza<br>Secretaría del Consejo de Gobierno Foral, Asesoría | 2.289,16 | 277,80 | | | | | | | | 2.566,95 |
| 11. Aldundiko Zerbitzu Orokorrak/<br>Servicios Generales Diputación | 2.297,40 | 3.128,00 | | | | 100,00 | | | | 5.525,40 |
| 12. Kontratazio publikoa koordinatzeko zerbitzua/<br>Servicio de coordinación de la contratación pública | 263,21 | 33,53 | | | | | | | | 296,74 |
| 20. Funtzio Publikoa/<br>Función Pública | 8.473,21 | 703,82 | | 58,80 | | 28,00 | | 1.481,85 | | 10.745,68 |
| 30. Gobernu Ona eta Herritarren Partaidetza/<br>Buen Gobierno y Participación Ciudadana | 782,20 | 1.063,00 | | 875,88 | | | | | | 2.721,08 |
| 40. Foru Aldundiko zerbitzuen berrikuntza eta eraldaket<br>Innovación y transformación de los servicios público | 1.198,30 | 313,66 | | | | | 3.237,79 | | | 4.749,75 |
| 50. Suaren aurkako babesa eta sorospena/<br>Protección contra el fuego y Salvamento | 27.143,28 | 2.015,00 | | 2.910,00 | | 2.956,02 | 25,00 | | | 35.049,30 |
| **Departamentua Guztira<br>Total Departamento** | **43.513,52** | **22.023,20** | | **3.940,94** | | **4.737,98** | **3.262,79** | **1.481,85** | | **78.960,27** |

